

ALTZA! PORRA



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: 55-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2003ko iraila / 10 zenbakia

Trikitixa elkarteak:

INPERNUKO POZA. Trikitixaren I. Jardunaldiak

Aurreko alean adierazi genizuen bezala, irailaren 30etik urriaren 3ra trikitixaren inguruko jardunaldiak izango dira Donostiako Koldo Mitxelena kultur gunean. Bertan, gai honetan aditu diren hainbat lagunek hartuko du parte. Trikitixaren I. Jardunaldi hauen prentsaurrekoa irailaren 26an, ostirala, egingo da jardunaldien leku berean, Donostiako Koldo Mitxelena kultur gunean. Egitarauaren berri zehatz-mehatz jakin nahi izanez gero, ale honekin batera bidalitako esku-orriari begiratu bat ematea besterik ez duzue. Ildo honetan, gogoan izan Bilbon ere egingo direla jardunaldi hauek, bertako Musika Eskolan, abenduaren 16tik 19ra.

Kursaalen trikiti doinuak nagusi


Iaz bezalaxe, aurten ere azaroan izango da Nazioarteko Trikitixa Jaialdia Kursaalgo Ganbera Aretoan, iluntzeko zortzietatik aurrera. Iazko bideari jarraituko dio aurten ere jaialdi honek. Azaroaren 22an, larunbata, izango da aukera hemengo zein kanpoko trikitilariak bertatik bertara entzun eta ikusteko. Honen harian, prentsaurrekoa azaroaren 17an, astelehena, egingo da Donostiako udaletxean, eguerdiko hamabietan. Beraz, trikitixa jaialdi honetarako gonbita egina dago, alde zuzenetik. Trikitizale ororen egarria ase eta elkarren arrimuan egun polita igarotzeko aukera polita, inondik inora ere.

Trikitilari profesionalen topaketak

Trikitilari profesionalen topaketak direla-eta, oraingoan Madrilgo editore bat, Miguel Campos, izango da Trikitixa Elkarteak Zarautzen duen lokalera bisita egingo duena. Urriaren 10ean, ostirala, izango da topaketa, goizeko 11.00etan, eta, betiko legez, gaian, argitaletxeen nondik norakoetan, jakin-mina duen edonor dago gonbidatuta hitzordu honetara. Ez dugu ahaztu behar beti ere trikitilari profesionalen kezkei erantzutea dutela xede topaketa hauek.

SAKABIREN LIBURUA PREST

Soinuaren Liburutegia sailak badu segida, 4. alea ere, Lasturko Sakabiren omenez egindako liburu-diskoa, prest baitago. Iñigo Aranbarri azkoitiarra arduratu da liburu idazteaz, eta bera izan da, gainera, bilketa-lana egin duena. Liburu irakurteraza da oso, eta Sakabi trikitilari handiaren bizitzako hainbat pasarte ekartzen



ditu gogora, elkarrizketetan oinarrituta. Horrexegatik da, hain zuzen ere, liburu atsegin eta arina, ez horregatik baliorik gabea; ez hain aspaldiko trikitilarien mundua irudikatzen baitu hein batean. Trikitixaren lehena eta oraina uztartzeko modu polita.

Urte luzez pandero lanetan lagun izan zuen Egañazpiri ere egiten zaio tarte. Egileak berak hala bukatzen du bere saioa: "Oraindik gauza gara soinu txikiak jotako pieza batekin emozionatzeko. Hutsa behar dugu guk ere iragan bat ezagutu dugula oroitzeko. Eta hori, asko da". Guk, behintzat, soinua bizkar gainean irudikatu dugu Sakabi, afizioari zenbaitek ofizioari jartzen dion baino arreta gehiago jarri zion gizona.

BAZKIDEEI DAGOKIEN KUOTA

Trikitixa Elkarteko bazkide zaren bezala, ohartxo hau zuri dagokizu bete-betean. Gogoan izan 2003ko kuota azaroaren lehenengo hamabostaldian pasatuko dizugula.

TRIKITILARIAK MUNDUAN:

Irats taldea, ameriketan

Irats trikitixa taldea udan Euskal Herritik kanpora ibili da. Hiru beratar eta lesakar bat dira taldea osatzen dutenak, Amaia Irastorza (trikitixa), Josune Irastorza (panderoa eta perkusioa), Joseba Irastorza (baxua) eta Karlos Semper (bateria). Honela adierazi digute berek non ibili diren: "Egonaldia EEBBetako hiru estatutan izan da. Gure egonaldia Wyoming Estatuko Rock Springs herrian hasi zen (bertan 9 egun igaro genituen), gero Utah estatura joan ginen, Salt Lake City hirira hain zuzen (4 egun), eta, bukatzeko, Nevadako lurraldean izan gara, Elko herrian (10 egun)".

Ekainaren 19tik uztailaren 10 arte egon dira Amerikako paraje hauetan. Hainbat kontzertu eman dituzte bertan, hartara joan ziren-eta. "Rock Springs-eko Nazioarteko Jaialdian parte hartu genuen. Bertan, Errumania, Mexiko eta beste herrialde askotako jendeak jo zuen. Gauean izan genuen "erromeria" nagusia, hau da, Euskal Etxe honetako festa. Salt Lake City-n, berriz, bi egunetan izan genuen festa. Honako hau Euskal Etxe txikia zen, ordea, eta, megafoniarik jarri ezin zuten, soinu eta panderoekin bakarrik jo genuen (etxean bezala, abesten, dantzan...). Elko-n, azken egonlekuan, bi erromeria nagusi genituen. Bata herriko kasinoan eta bestea NABO-ko festa nagusian".

Irats taldeko Amaia Irastorzak adierazi digunez, saio ofizial hauez gain, egunero ibili omen dira soinua aldean hartuta. Harrera bikaina egin dietela aitortu digu. "Giro aldetik ezin gara kexatu, izan ere, hemengo plazetan izaten dugun giroa baino hobea sumatu dugu Ameriketara. Gehienbat kantu zaharrak nahi izaten zituzten, baina NABO-ko festan (Elko-n), Ipar Amerika guztitik joandako jendea zegoen, oso jende gaztea, eta denetik nahi izaten zuten: fandangoa, arin arinak, zortzikoak...".



Wyoming Estatuan, Rock Springs-eko Nazioarteko Jaialdian, Irats taldea kontzertu bete-betean. Lau musikariak ikus ditzakegu lanean buru-belarri.

Bestalde, herri bakoitzean giroa desberdina izan zela ere eman digu jakitera. Rock Springs-en, esaterako, festa erdi amerikarra omen zen, Salt Lake-n familia girokoa, eta Elko-n, berriz, oso giro euskalduna.

Ilido honetan, bertan bizi diren euskaldunek trikitixaren berri badutela adierazi digu Irats taldeko trikitilariak. "Bertan bizi diren euskaldunek ezagutzen dute trikitixa (nahiz eta lehengo modu zaharrean izan). Oraingo gazteek, berriz, ez dute oso ongi bereizten soinu handia (akordeoia) eta trikitixa. Hala ere, ezaguna zaie musika tresna hau". Trikitixaren berri baduten lekuko, bertan bizi den euskaldun batek trikitixa bat omen zuen etxean, hona etorritako bidaiaren batean erositako, Euskal Herritik norbait joaten denerako.

Esperientzia oso polita bizi izan du nafar aldetik Ameriketara hurbildutako talde honek, errepikatze modukoa, ez bairik gabe. Berriz ere hemen plazaz plaza ibiltzeko indarberrituta etorri zaizkigu.

Trikizio, holandan eta katalunian

Trikizio taldea ere uda honetan ibili da hona eta hara, Euskal Herriko plazak ahaztu gabe. Gorka Berasategi (gitarra), Maider Redondo (ahotsa eta panderoa), Oihane Arratibel (baxua), Xabier Arakama (trikitixa eta ahotsa) eta Unai Lopategik (bateria) osatzen dute taldea. Hain zuzen ere, Holanda eta Katalunia aldean ibili berri dira, lehendik ere ezagunak dituzten parajeetan.

"Holandan Groningen izeneko iparraldeko hiri batean jo genuen, abuztuaren 23an.

Noordezko izeneko 11 eguneko kultur jaialdi batean parte hartu genuen. Bertan musika, dantza, antzerkia eta beste hainbat alor biltzen ziren", Xabier Arakamaren hitzetan.

Xabier Arakama bera Holandan egon izan da workshop batzuk ematen, eta han duela hiru-lau urte ezagututako lagun baten bidez joan dira aurten hara. Dena den, ez omen da Holanda aldean ibiltzen diren lehen aldia. Trikizio taldea hirutan izan da inguru horretan, eta Xabier Arakama, berriz, oraindik gehiagotan izan da Holandan trikitia jotzen.

Holandan eman zuten kontzertua oso berezia izan zela adierazi digu Xabier Arakamak: "Laku baten gainean zegoen eszenatokia

eta aurrean ura besterik ez genuen; jendea, berriz, aldamenetan. Egia esan, harrিতa geratu ginen jende kopuruarekin, asko baitzegoen. Gainera, hasi baino 15 bat minutu aurretik zeuden gure zain, eta, abestiak bukatu orduko, txalo zaparrada handia entzun zitekeen".

Ikusten denez, harrera beroa egin zieten Trikizio taldekoei, eta jende andanak eskatu omen zieten beren diskoa. Xabier Arakamak berak esan digunez, jende askok omen du han trikitixaren ezagutza, gehienbat Kepa Junkera eta Joseba Tapiaren bitartez.

Trikizio taldekoak Katalunia aldean ere izan dira, ordea, Cerveran hain zuzen. Abuztuaren 29an izan ziren Aquelarre izeneko hiru eguneko festa batean. Bertan, kontzertuak eta beste hainbat ekitaldi zeuden antolatuta. Kontzertu honetan Pomada taldeak jo zuen Trikizio taldearen aurretik, eta euskaldunen saioaren ondoren, Obrin Pas Valentziarrek hartu zuten lekukoa. "Izugarrizko jendetza zegoen, eta harrিতa geratu ginen bildutako harrerarekin. Gainera, euskal musika asko ezagutu eta estimatzen dute. Trikitixa ere ezagutzen dute", kontatu digu Xabier Arakamak.

Trikizio taldekoak ere, Irats taldekoak bezalatsu, gustura ibili dira Euskal Herritik kanpora.

Disko berriak



Isidro Larrañaga

Isidro Larrañaga soinu-jotzaileak hamabi kantuz osatutako diskoa plazaratu du, Agorila argitaletxearen eskutik. Hamabi kantuetatik erdiak berak sortuak dira, eta besteak, berriz, moldaketak. Bere ibilbide luzean jorratu dituen erritmo eta estiloak

bildu nahi izan ditu. Besteren artean, tangoa, erritmo zeltak, fandangoa, arin-arina, baltsa...

1979an egin zuen lehen diskoa Larrañagak, Euskal Herriko dantzak izenekoa. Bere bigarren lan honek, beraz, luzaro itxaron du, 24 urte hain zuzen. Mutil kozkorra zela hasi zen plazarik plaza jotzen, eta bakarka zein taldean hamaika saio egina da.

Karlos Jimenezek lagundu dio diskorako moldaketak egiten, eta bai egileak eta bai laguntzaileak ere diskoaren freskotasunari ematen diote garrantzia. Abesti alaiak eta arinak egitea zuen helburu, eta, hori dela bide, zuzeneko emanaldien giroa lortu dute. Larrañagak aspalditik zebilkien buruan jirabiraka lan hau osatzea. Disko honetan Javi Area (perkusioa), Maitetxu Aldaregia (biolina), Iñaki Garmendia (flauta), Jon Ander Larrañaga (gitarra eta mandolina), Jesus Maria Pagadi (panderoa), Karlos Jimenez (pianoa) eta Lerman (baxua) izan ditu laguntzaile.

Isidro Larrañaga beti izan da estilo eta jarrera berrien zale eta horregatik abestiak hainbat erritmorekin aberastea izaten du gogoko. Bere ikasle den Jose Mari Mendizabalen esanetan, disko honek munduko erritmoen erakusleiho izan nahi du, baita Isidro Larrañagaren beraren barne-munduaren isla ere. Horregatik du izenburu trikitilariaren izena, diskoan bertan musikariaren izatea ongi adierazten delako. Abestu, berriz, honako lagun hauek abestu dute: Imanol Urkizu, Olatz Korta, Jon Ander eta Itziar Larrañaga, eta Xabier Zubeldiak. Hamabi abestietako bat, "Aupa Orio!", Orioko arraunlarien eta arrantzaleen omenez egindakoa da, eta Angel Mari Peñagarikanorena du letra. Ildo honetan, CDaren azalak, Joseba Urretabizkaia egindakoak, arraunlarien eszena bat irudikatzen du.

Lazkaoko kilometroetako abestia, Alaitz eta Mainerrena

Lazkaoko kilometroen abestia Alaitz eta Mainerrek egin dute. Zazpi abesti aurkeztu ziren aurtengo kilometroetako abestia norena izango, eta, azkenean, hedabideetako aditu talde batek Alaitz eta Maider oiartzuarren abestia aukeratu du. Lehiaketara 7 abesti aurkeztu ziren, eta abesti guztiak bildu dituzte CD batean. Hauexek dira beste sei kantuen egileak: Drindots (2), Lazkaoko Musika Eskola (1), Lazkaoko Abesbatza (1) eta Kaki Arkarazo (1). Izan ere, aukeratze-modu honetan parte hartzeko baldintzetako bat Lazkaorekin lotura izatea zen, eta horregatik Lazkaoko jendearen parte-hartzea. Oiartzuarron kasuan, Alaitz Telletxeak badu harremanik Lazkaorekin, bertako Musika Eskolan ari baita lanean 4-5 urteko haurrekin.

Abestiaren letragilea Jokin Lasa lazkaotarra da. "Deika ari da mobila", hala dio abestiak, eta Kilometroen leloa dauka izenburu: Euskrz 2zi ny dt. Jakina, sakelako telefonoa tartean, komunikabide horretako grafia erabili behar ezinbestean. Urriaren 5ean Kilometroetako festa handian entzungo den abestia "martxosoa" eta alaia dela adierazi dute egileek berek, eta, oro har, diskoa bera gustagarria dela. Hona hemen, abestiarekin harremanetan jartzeko, zatitxo bat, letraren hasieraren berri izateko besterik ez bada ere: "Deika ari da mobila/ Nor ote nire bila?/ Mezuren bat isila/ Jasotzen ditut mila". Gainera, letra bera izan da oraingo honetan musikaren aurretik egin dena, eta adituen arabera, ez du aitzakiarik, letra eta musika bikain uztarturik baitaude.

Beraz, abesti hau entzuteko aukera Kilometroen festan ez ezik, CD batean ere baduzue, betiere "Euskrz 2zi ny dt" leloa bidelagun. Izan dadila letren mamian forman adinako aurrerakada.

Arrasateko Trikitixa Eskola



Arrasateko Trikitixa Eskolakoek disko bat kaleratu berri dute. Bertako ikasleek egindako diskoa da. Trikitixa Eskola honek 12 urte bete ditu eta beren lana jendearengana hedatzeko asmoa bete egin dute. 35 lagunek hartu dute parte lan honetan. Oraingo ikasleak ez ezik,

ikasle ohiak eta Arrasateko beste lagun batzuk ere aritu dira lanean. Arrasateko Trikitixa Eskolak 25 ikaslerekin hasi zuen ibilbidea, eta geroztik makina bat ikaslek heldu dio bide berari.

Hamar abestik osatzen dute diskoa, horien artean, Arrasaten hain ezagun diren "Errementari dantza", "Txerri dantza" eta

"Maritxu nora zoaz?" bildu dituzte lanean, besteak beste. Horiez gain, fandango, arin-arin eta beste hainbat doinu alai ere badira tartean, umorez betetakoak guztiak ere.

Ikasleek egindako lan hau Arrasateko trikitizale orengana iristea nahi lukete, eta horixe hartu dute helburu. Azken batean, trikiti doinuak hedatzea da beren nahia, leku guztietan trikitixaz gozatu ahal izateko aukera izatea; oraingo honetan bertakoen eskutik, gainera. Hori dela eta, Arrasateko hainbat tabernatan jarri dute diskoa salgai, 10 euroren truke. Beraz, orain dela 12 urte ereindako haziak eman du fruiturik, trikitizale orenen belarri-gozagarri.

HAUSPO ZAHARRAK



Orain dela 25 bat urteko euskararen aldeko festa handia. Bilboko San Mames estadioa jendez gainezka ikus dezakegu. Bertan bildutako jende andana animatzeaz, berriz, hainbat eta hainbat saio egindako musikari parez, Maurizia eta Leon Bilbao, arduratu ziren; soinean ohiko jantziak zituztela.

1978an egin zen ekitaldi berezi hau, eta orduan ere argazkilariak ez ziren urruti.

Maurizia eta Leon Bilbaoren doinuen oihartzunak bizirik dirau.

KALEJIRAN

• Iker Goenaga Getxoko Folk jaialdian

Iker Goenaga trikitilari zizurkildarrak eta Galiziako Berrogüeto taldeak egin zuten Getxoko Nazioarteko Folk jaialdiaren hondar saioa, irailaren 7an. Txikitxuterik (2003) azken lana izan zuen oinarri Iker Goenagak bere saioan. Honen ondotik, Galiziako musikari bikainenek osatzen duten Berrogüeto taldearen txanda izan zen. XIX. Folk jaialdi honetan 22 musika saio izan dira guztira, eta 17 herrialdetatik ekarri dituzte musikariak. Agi denez, euskaldunen presentziari ezin uko egin.

• Trikitixa eguna ezpeletan

Irailaren 28an, igandea, ospatuko da Trikitixa Eguna Ezpeletan, Lapurdin ere trikitixa bizirik dagoen seinale. Egun osoan izango da trikitixarekin ikuskizuna duten hainbat ekitaldi Lapurdiko herrixka honetan, besteak beste, Tapia eta Leturiaren kontzertuaz gozatu ahal izango dute bertan biltzen diren hamaika trikitizalek. Erromeria giroa gustuko duzuenok, beraz, anima zaitzte ipar Euskal Herrira txango txiki bat egitera, hantxe izango baitituzue zain inon diren trikiti doinurik bizienak. Trikitixaren anparoan, hankak arin-arin, egunpasa bikaina igarotzeko aitzakia polita irailaren azken igandekoa.

GALBAHEA

Kepa Junkera (Aizu!, 260, 2001-IX)

"Ni ez naiz tresnara mugatzen, neure burua ez daukat instrumentistatza. Nahiago dut ideari, produktioari, osotasunari erreparatu. Ez dakit edozer jotzeko modukoa den. Norberak sentitzen duena egin beharko du. Ni, esaterako, herri musika tresnez gain, beti erakarri izan naute txeloak, pianoak, e.a. Ez naiz mugatzen beraz".

Kristina Solano (Berria, 2003-VII-5)

"Trikitixak garai batean zuen arrakastarik ez du. Garai bateko erromeriekin konparatuta, dantza egiteko ohitura galdu egin da. Abaltzisketa, Altzo, Baliarrain eta horrelako herri txikitako jendea zuzenean dantza egitera etortzen da, ohitura gordetzen dute. Baina herri handietan, txosnaren bat inguruan ez badago, jendea gehiago kostatzen zaio dantzan hastea".

Trikitixa Kontraio (Berria, 2003-IX-11)

"Beti egongo da merkatu bat eta lekutxo bat plazetan jotzeko. Moda baino gehiago plazetako musika bera ikusten dut beheja jota, herrietan eta hainbat lekutan. Gero eta jende gehiago hurbiltzen da plazetara dantza egitera eta musikaz gozatzera; eta geroz eta jende gehiago joaten da diskoteketara eta tabernetara. Gu saiatzen gara edozein lekutara goazela ere jendea dantzan jartzen. Egia esan, geroz eta gehiago kostatzen da. Batik bat hori aldatu da".

Xabier Berasaluze, "Leturia" (Berria, 2003-VII-22)

"Joera nagusi batzuk daude. Horren aurka zer egin? Gu, adibidez, moldeak hausten saiatzen gara, gauza bereziak eginez. Orain beste folk ikuspegi bat ematen dugu. Musikak aldakorra izan behar du, bestela bat-batean porrot egiten duzu. Eta aldakorra izanda ere, mirari bat da mantentzea eremu urriko kultura bateko berezitasunak".

AGENDA

Iraila

-M-N Ezten
20: Hernialde (G)

-Tapia eta Leturia
20: Elko (Nevada)
26: Vic (Bartzelona)
29: Iurreta (B)

-Tapia eta Leturia + Patxi Perez.
28: Ezpeleta (L)

-Trikizio
20: Donostiako Egia auzoa (G), gauean
21: Donostiako Egia auzoa (G), gauean

-Urgabe
20: Larrauri (B)

-Alaitz eta Mainer
21: Uharte (N), 19.00etan.
27: Markina-Xemein (B)

-Epelde eta Larrañaga
27: Gaintza (G), gauean
28: Aldaba (G)
29: Aizarnazabal (G), gauean

-Zabale eta Larrañaga
29: Altzaga (G), egunez.

Urria

-Urgabe
3: Derio San Migel (B)

-Koldo eta Arantxa Iparragirre
5: Lazkao, Kilometroak (G)

-Trikizio
5: Lazkao, Kilometroak (G)

-Tapia eta Leturia
5: Lazkao, Kilometroak (G)
11: Salt (Girona)
12: Gallarta (B)

Azaroa

-Tapia eta Leturia
10: Arama (G), 21.00etan.